

1/2022 INSTRUKZIOA, URRIAREN 21EKOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEARENA.

HARTZAILEAK: SAILETAKO ZERBITZUKO EDO KUDEAKETA EKONOMIKOKO ZUZENDARITZAK, ERAKUNDE AUTONOMOETAKO ZUZENDARITZAK, EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO GAINERAKO ERAKUNDEETAKO ZUZENDARITZA-ORGANOAK, KONTRATAZIOA SUSTATZEN DUTEN UNITATE EDO ZERBITZUAK

XEDEA: EUOPAR BATASUNAK NEXT GENERATION FUNTSEN BIDEZ FINANTZATUTAKO KONTRATU TXIKIA, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN BARRUKOA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 28. d) artikulua ezartzen duenez, eginkizun hau bete behar du Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak: *«Kontratazioaren alorrean egokitzen hartzen dituen arauak, zirkularrak, jarraibideak edo gomendioak prestatzea eta proposatzea, dagozkion eskumenen eremuan».*

Hona hemen jarraibide hau, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren araudia kontratu txikien kontratazio publikoko prozeduretan aplikatzeko zenbait alderdi argitzeko, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzak bidalitako memoriarekin bat etorriz.

JARRAIBIDEAK

LEHENENGOA.- PRTR araudiarekin lotutako kontratuei aplikatu beharreko eskakizunak betetzeari buruzkoa.

Dagoeneko ezarrita daude Suspertze eta Erresilientziako Mekanismo Europarraren bidetik, Europar Batasunak finantzatutako kontratuetan aplikatu beharreko mekanismo eta urratsak. Zehazki, honako bi aginduk ezarri dituzte: batetik, Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema taxutzen duenak, eta, bestetik, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduak, Suspertze eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien mugariak eta helburuak

betetzen diren eta aurrekontuak eta kontabilitatea exekutatzeko Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituenak.

Ministro-agindu biek kontratazio-prozedurako eragileak nahitaez elkarrekin lotzen dituzten zenbait jarduera jasotzen dituzte. Beraz, arau horien aplikazioak sektore publikoa osatzen duten erakundeek lizitatutako kontratu publiko guztiei eragiten die, kontratu txikiak barne. Era berean, gainerako parte-hartzaileak ere behartzen dituzte PRTR araudian ezarritakoa betetzera; horien artean, lizitatzailerak eta kontratistak, batik bat.

PRTR araudiaren arabera finantzaturako kontratuak HFP/1030/2021 Aginduaren 2. artikuluan jasotako printzipioak errespetatu behar dituzte, eta kontratuaren baldintza-agirietan sartu behar dituzte printzipio horiek. Zehazki, hauek:

- Mugarriaren eta helburuaren kontzeptua, bai eta haren jarraipena egiteko eta emaitza egiaztatzeko behar diren irizpideak ere.
- Etiketa berdea eta etiketa digitala.
- Arriskuen analisia, ingurumenean izan daitezkeen inpaktu negatibo esanguratsuei buruzkoa (Do no significant harm, DNSH), eta hasierako ebaluazioaren gaineko emaitzen jarraipena eta egiaztapena.
- Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzea, hautematea eta zuzentzeko mekanismoak indartzea.
- Estatuko laguntzen araubidearekin bateragarri izatea eta finantzaketa bikoitzaren prebentzioa.
- Funtsen azken hartzailearen identifikazioa, dela laguntzen onuradunarena, dela kontratu edo azpikontratista baten esleipendunarena.
- Komunikazioa.

BIGARRENA.- Kontratazio-espeditentean sartu beharreko alderdiak

HFP/1030/2021 eta HFP/1031/2021 Aginduetan eta Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen 2021eko abenduaren 23ko Jarraibidean ezarritakoaren arabera, STEParen esparruan finantzaturako kontratu txikiei buruzko espeditentean honako hau jaso beharko da:

1. Justifikazio-memoria, instrukzio honen lehen apartatuan aipaturako gaiak jasotzen dituen, I. eranskineko ereduaren arabera.
2. Eskaintza-eskaera, II. eranskineko ereduaren arabera.
3. Gastua baimentzeko ebazpena, III. eranskineko ereduaren arabera.
Dagokion kontratu publikoari aplikaturako iruzur-, ustelkeria- edo interes-gatazkaren arriskuaren ebaluazioa egin dela adieraziko da.
Interes-gatazkei eta iruzurrei aurre egiteko prozedura erabilgarri dela aipatuko da.
4. Interes Gatazkarik Ezaren (IGEA) deklarazio guztiak sartuko dira, kontratazio-organoak lizitazioan parte hartu dutenek beteta, bai eta kontratista eta azpikontratisten deklarazioak ere, lortzen direnean, IV. eranskineko 3. atalean jasotako ereduaren arabera.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren (STEP) zeharkako printzipioak betetzeko konpromiso-adierazpenak erantsiko dira, bai eta datu pertsonalak lagatzeari eta tratatzeari buruzkoak ere, IV. eranskineko 1. eta 4. ataletan jasotako ereduaren arabera.

Era berean, ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH printzipioa) erantsiko da, IV. eranskineko 2. atalean jasotako ereduaren arabera.

Azkenik, beharrezkoa da jasota lagatzea organo kudeatzaileak egiaztatu duela ez dagoela dagokion kontratuaren finantzaketa bikoitzik.

HIRUGARRENA.- Nahitaezkotasuna

Instrukzio hau eta erantsitako eranskinetan jasotako ereduak nahitaez betetzekoak izango dira Euskal Sektorre Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 8. eta 9. artikuluetan zehaztutako Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren barruko erakundeen kontratazio-organo guztientzat.

I. ERANSKINA

JUSTIFIKAZIO-MEMORIA,(E)KO (KONTRATU TXIKIA), EUROPAR BATASUNAK NEXT GENERATION EU-REN BIDEZ FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN

Azalpen-zatia.

2020ko uztailaren 21ean, Europar Kontseiluak irismen luzeko neurrien zorro bat adostu zuen; neurri horien bidez bateratu egin zen 2021-2027 aldirako urte anitzeko finantza-esparrua (UAFE), Europar Suspertze Tresna bat («Next Generation EU») martxan jartzea indartuz; tresna horren elementu nagusia Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa – SEMa– da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan ezarritakoa.

Hain zuzen ere, Next Generation EU ekimenaren esparruan, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa –SEMa– sortu zen. Horren bidez, hogeita zazpi estatu kideei laguntza emango zaie zuzeneko transferentzien eta maileguren bidez, inbertsio publikoak handitzeko eta ekonomia suspertzen eta enplegua berreskuratzen lagunduko duten erreformak egiteko, COVID-19 pandemiaren osteko erronka ekonomiko eta sozial nagusiei aurre egiteko aldera.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 17. eta 18. artikuluen arabera, estatu kideek erreforma eta inbertsioetarako programa bat eratu behar zuten, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plan –SEEP– izenekoa, eta Europako Suspertze Funtsetik datozen finantza-baliabideak gauzatzeko tresna izango zena.

Espainiako Gobernuak, Ministro Kontseiluaren 2021eko apirilaren 29ko Erabakiaren bidez, dagokion Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana onartu zuen (2021eko apirilaren 30eko BOE, 103. zenbakikoa), eta, geroago, Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko Betearazpen Erabakiaren –Espainiako suspertze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoaren– bidez onartu zen plan hori (Council Implementing Decision- CID).

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak (SEEP) bere ekintza-ildoetako bat (xxxx) Osagai gisa definitutakoa da. Ekintza-ildo hori honako erreforma/inbertsioetarako neurri hauetan (xxx) gauzatzen da, eta neurri horiek kontratu txiki honen bidez gauzatuko dira.

1. Xedea.

Kontratua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik datozen Europako Funtsen kontura dago finantzatuta, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (xxxx) Osagai bildutako (xxxx) Erreforma/Inbertsioan bildutako jarduketara bat du xede.

2. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan aplikatu beharreko araudia.

Kontratuak honako arau hauetan ezarritakoa bete behar du, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan finantzatzeari dagokionez:

- (a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.
- (b) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onesten baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko.
- (c) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.
- (d) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana osatzen duten alderdien mugarren eta helburuen betetze-mailaren eta aurrekontuen eta kontabilitatearen segimendua egiteko.
- (e) Gobernu Kontseiluaren Akordioa, 2022ko otsailaren 8koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu zen plan hori).
- (f) Gobernu Kontseiluaren Akordioa, 2022ko martxoaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana onartzen duena (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu zen plan hori).

3. Kontratataren betebeharrak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik – SEMetik– eratorriak.

Funtsak jasoko dituen kontratistak betebeharrak hauek izango ditu:

- (a) Neurri egokiak eta estandar altuenak hartzea Europar Batasunaren finantza-

interesak babesteko eta funtsen erabilera (Mekanismoak finantzatutako neurriei dagokienez) aplikatu beharreko lege-esparrura egokitzen dela zaintzeko, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak zuzentzeko neurriak prebenitu, hauteman eta hartzeari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluan ezarritako betebeharraren esparruan betiere. Kontratatik barne-kontrolerako ezarrita dituen sistemak alde batera utzi gabe, hau sinatzeaz bat atxiki egingo dio kontu hauen inguruko planari: “Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana” delakoari (Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Akordioan onartutakoari); izan ere, bertan jasotako gomendioak berariaz bete beharko ditu.

- (b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsei kontrola eta jarraipena egiteko ardura duten estatuko eta Europako organoek –bereziki, Europako Batzordeak, Europako Kontuen Auzitegiak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) eta Europako Fiskaltzak– proiektura bideratutako funtsen aplikazioa kontrolatzeko jarduketan mende jartzea; izan ere, gauzatutako informazioari buruzko xehetasunak eskuratu ahal izango dituzte organo horiek.
- (c) Funtsen azken hartzailea identifikatzea (kontratatik eta azpikontratatik) HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta lizitazio-prozeduretan jasoaraztea funtsen azken hartzaileek honako informazio eta dokumentazio hauek aurkeztu behar dituztela derrigorrean:
 - (i) Kontratatikaren eta azpikontratatikaren IFZa.
 - (ii) Izena edo izen soziala
 - (iii) Kontratatikaren eta, hala badagokio, azpikontratatikaren zerga-egoitza
 - (iv) Nola kontratatikaren hala azpikontratatikaren benetako titulartasunaren identifikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluan 6. puntuan horri ematen zaion definizioaren arabera, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezartzen denari jarraikiz betiere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluari dagokionez.

- (v) SEEPen ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, kudeatu beharreko esparruari eragiten badiote.
- (vi) Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH printzipioa)
- (vii) Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)
- (viii) Inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzen delako adierazpena, Europa mailako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko eta bat etorriaz Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin.
- (ix) Kontratatuek egiaztatu egingo dute izena eman dutela Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan, edo Zergen Foru Administrazioako errolda baliokidean; prozeduran parte hartu den unean benetan garatutako jarduera islatu behar da.

4. Administrazioaren betebeharrak

- (a) Hau ziurtatzea:
 - (i) Kontratu hau egikaritzeko kontratatuko diren balizko enpresak hautatzeko prozesuan edota baldintzak betetzen direla egiaztatze prozesuetan parte hartzen duten pertsonak adierazi egingo dute osorik eta inolako erreserbarik gabe ezagutzen eta onartzen dituztela 2022ko martxoaren 29ko Gobernu Kontseiluaren Akordio bidez onetsitako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien planaren baldintzak. Horretarako, pertsona horien artean egongo dira kontratua esleitzeko eskumena duen organoaren arduraduna, kontratua esleitzeko beharrezkoak diren dokumentuak idazten dituzten langileak, bai eta kontratua prestatzen eta esleitzen edozein erataria parte hartzen duten adituak eta batzordeko kideak ere, jarduketa horietan lagundu eta aholkatzen duten entitate pribatuetako pertsona fisiko guztiak barne.
 - (ii) Aurreko apartatuan bildutakoa bete behar duten pertsonak Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) ere beteko dutela, hala egin behar dela ezartzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko

uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduko 61.3 artikuluan (Finantza Erregelamendua) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23. artikuluan. Adierazpen horren eredia dokumentu honen 1. eranskinean dago.

- (iii) Prozeduraren batean interes-gatazkak eragiteko arriskua dakarren kausaren batean dauden agintariak eta langileak ez dutela esku hartuko dena delako prozedura horretan. Nor edo nor uste badu balitekeela interes-gatazkarik egotea, hierarkian gorago dagoenari jakinaraziko dio, idatziz; zerbitzu juridikoek txostena egingo dute, eta hartu beharreko erabakia hartuko da.
- (iv) Interes-gatazka antzeman ondoren, berehala hartuko dira neurri egokiak, dagokion kasuari aplikatu beharreko lege- eta erregelamendu-arauen arabera.

5. Dokumentazioaren zaintza

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132 artikuluan ezarritako betebeharrari jarraikiz, erregistro bat mantendu beharko da, eta finantzaketari buruzko egiaztagiriak, datu estatistikoak eta gainerako agiriak gordeko dituzte bertan, bai eta formatu elektronikoko erregistroak eta dokumentuak ere, saldoa –edo, ordainketa horren ezean, eragiketa– ordaindu eta bost urteko epean. Aldi hori hiru urtekoa izango da finantzaketa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada. Betebehar hori, hala badagokio, enkargu hau egikaritzearen esparruan parte hartzen duten kontratista eta azpikontratistei ere eskatu ahalko zaie.

Auditoriei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei edo Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erreklamazioen izapidetzeari buruzko erregistroak eta dokumentuak, bestalde, auditoria, errekurtso, auzi, erreklamazio-izapidetze edo ikerketa horiek amaitu arte gordeko dira. Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoak egindako ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da.

Erregistroak eta dokumentuak gordetzeko hiru aukera daude: jatorrizkoak; jatorrizkoen kopia konpultsatuak; edo orokorrean onartutako datu-euskarriak, hala nola jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan soilik existitzen diren dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean, ez dira beharrezkoak izango originalak, baldin eta dokumentu horiek legeko baldintza aplikagarriak betetzen badituzte, auditoria-ondorioetarako jatorrizkoen baliokide eta fidagarritzat jo ahal izateko.

6. Publizitatea eta zabalkundea.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ezarritako betebeharrak betetz, enkargu hau Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatzearekin zerikusia duten komunikazio-jarduketara guztietan, modu nabarmen eta ikusgarrian erakutsi beharko da Europar Batasunaren enblema; halaber, jasotako finantzaketaren adierazpena ere erantsi beharko dute honako erreferentzia honekin: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana — Europar Batasunak finantzatua — NextGenerationEU».

Europar Batasunaren enblema desberdina izango da eta bereizita utzi beharko da, eta ezingo da aldatu, bestelako ikus-marka, marka edo testuak gehituz.

Gauzatutako jardueren buruzko informazio- eta komunikazio-neurri horiek informazio-karteletan, plaketan, argitalpen inprimatuetan eta elektronikoetan, ikus-entzunezko materialean, webguneetan, prentsako iragarki eta txertaketetan, ziurtagirietan eta abarretan sartuko dira. Informazio-kartel eta plaka guztiak edonork ondo ikusteko moduko leku batean jarri beharko dira.

7. Datuen babesa.

Kontratistak honako hauetan ezarritako eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzen du: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta Datuak Babesteko Lege Organikoa garatzeko erregelamendua onesteko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua. Erreferentziako proiektua amaitu ondoren ere, betebeharrak horrek indarrean jarraituko du.

8. Epea eta aurrekontua.

Lana egiteko epea: xxxxxx, kontratazioa formalizatzen denetik aurrera.

Lana egiteko aurrekontuak, dokumentazio-, garraio-, mantenu- eta bestelako kostuak barne hartuta, xxxxxxxxxxxxxx eurokoa izan behar du, BEZaren % 21 kontuan hartu gabe.

9.(r)en eskaintza eskaeraren justifikazioa.

Zuzendaritzak xxxxxxxxxxxxxxxxxxxx eskatu du.

10. Lana egiteko(e)k eskainitako aurrekontua.

xxxxxxxxx (e)k lana egiteko eskainitako aurrekontua xxxxxxxxxxxx eurokoa da, gehi BEZa.

11. Dokumentuaren sinadura.

XXXXXn, 20XX (e) ko XXXXren XX (e)an.

Sin.: XXXXXX

II. ERANSKINA

(KONTRATU TXIKIAREN ESKAINTZA EGITEKO ESKAERA) XXXXXXXX, EUROPAR BATASUNAK NEXT GENERATION EU-REN BIDEZ FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN.

Azalpen-zatia.

2020ko uztailaren 21ean, Europar Kontseiluak irismen luzeko neurrien zorro bat adostu zuen; neurri horien bidez bateratu egin zen 2021-2027 aldirako urte anitzeko finantza-esparrua (UAFE), Europar Suspertze Tresna bat («Next Generation EU») martxan jartzea indartuz; tresna horren elementu nagusia Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa –SEMa– da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan ezarritakoa.

Hain zuzen ere, Next Generation EU ekimenaren esparruan, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa –SEMa– sortu zen. Horren bidez, hogeita zazpi estatu kideei laguntza emango zaie zuzeneko transferentzien eta maileguren bidez, inbertsio publikoak handitzeko eta ekonomia suspertzen eta enplegua berreskuratzen lagunduko duten erreformak egiteko, COVID-19 pandemiaren osteko erronka ekonomiko eta sozial nagusiei aurre egiteko aldera.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 17. eta 18. artikuluen arabera, estatu kideek erreforma eta inbertsioetarako programa bat eratu behar zuten, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plan –SEEP– izenekoa, eta Europako Suspertze Funtsetik datozen finantza-baliabideak gauzatzeko tresna izango zena.

Espainiako Gobernuak, Ministro Kontseiluaren 2021eko apirilaren 29ko Erabakiaren bidez, dagokion Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana onartu zuen (2021eko apirilaren 30eko BOE, 103. zenbakikoa), eta, geroago, Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko Betearazpen Erabakiaren –Espainiako suspertze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoaren– bidez onartu zen plan hori (Council Implementing Decision- CID).

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planak (SEEP) bere ekintza-ildoetako bat (xxxx) Osagai gisa definitutakoa da. Ekintza-ildo hori honako erreforma/inbertsioetarako neurri hauetan (xxx) gauzatzen da, eta neurri horiek kontratu txiki honen bidez gauzatuko dira.

1. Xedea.

Kontratua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik datozen Europako Funtsen kontura dago finantzatuta, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (xxxx) Osagaian bildutako (xxxx) Erreformatan/Inbertsioan bildutako jarduketa bat du xede.

2. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan aplikatu beharreko araudia.

Kontratuak honako arau hauetan ezarritakoa bete behar du, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan finantzatzeari dagokionez:

- (a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.
- (b) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onesten baitira Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko.
- (c) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.
- (d) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana osatzen duten alderdien mugarren eta helburuen betetze-mailaren eta aurrekontuen eta kontabilitatearen segimendua egiteko.
- (e) Gobernu Kontseiluaren Akordioa, 2022ko otsailaren 8koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu zen plan hori).
- (f) Gobernu Kontseiluaren Akordioa, 2022ko martxoaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana onartzen duena (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu zen plan hori).

3. Kontratatoren betebeharrak, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik – SEMetik– eratorriak.

Funtsak jasoko dituen kontratatistak betebeharrak hauek izango ditu:

- (a) Neurri egokiak eta estandar altuenak hartzea Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko eta funtsen erabilera (Mekanismoak finantzatutako neurriei dagokienez) aplikatu beharreko lege-esparrura egokitzen dela zaintzeko, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak zuzentzeko neurriak prebenitu, hauteman eta hartzeari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluan ezarritako betebeharraren esparruan betiere. Kontratatistak barne-kontrolerako ezarrita dituen sistemak alde batera utzi gabe, hau sinatzeaz bat atxiki egingo dio kontu hauen inguruko planari: “Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana” delakoari (Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Akordioan onartutakoari); izan ere, bertan jasotako gomendioak berariaz bete beharko ditu.
- (b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsei kontrola eta jarraipena egiteko ardura duten estatuko eta Europako organoek –bereziki, Europako Batzordeak, Europako Kontuen Auzitegiak, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) eta Europako Fiskaltzak– proiektura bideratutako funtsen aplikazioa kontrolatzeko jarduketan mende jartzea; izan ere, gauzatutako informazioari buruzko xehetasunak eskuratu ahal izango dituzte organo horiek.
- (c) Funtsen azken hartzailea identifikatzea (kontratatistak eta azpikontratatistak) HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta lizitazio-prozeduretan jasoaraztea funtsen azken hartzaileek honako informazio eta dokumentazio hauek aurkeztu behar dituztela derrigorrean:
 - (i) Kontratatoren eta azpikontratatisten IFZa.
 - (ii) Izena edo izen soziala
 - (iii) Kontratatoren eta, hala badagokio, azpikontratatisten zerga-egoitza
 - (iv) Nola kontratatoren hala azpikontratatisten benetako titulartasunaren identifikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluen 6. puntuan

horri ematen zaion definizioaren arabera, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezartzen denari jarraikiz betiere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluari dagokionez.

- (v) SEEPen ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, kudeatu beharreko esparruari eragiten badiote.
- (vi) Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH printzipioa)
- (vii) Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)
- (viii) Inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzen delako adierazpena, Europa mailako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko eta bat etorritik Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin.
- (ix) Kontratatuek egiaztatu egingo dute izena eman dutela Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan, edo Zergen Foru Administrazioako errolda baliokidean; prozeduran parte hartu den unean benetan garatutako jarduera islatu behar da.

4. Administrazioaren betebeharrak

- (a) Hau ziurtatzea:
 - (i) Kontratu hau egikaritzeko kontratatuko diren balizko enpresak hautatzeko prozesuan edota baldintzak betetzen direla egiaztatze prozesuetan parte hartzen duten pertsonak adierazi egingo dute osorik eta inolako erreserbarik gabe ezagutzen eta onartzen dituztela 2022ko martxoaren 29ko Gobernu Kontseiluaren Akordio bidez onetsitako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien planaren baldintzak. Horretarako, pertsona horien artean egongo dira kontratua esleitzeko eskumena duen organoaren arduraduna, kontratua esleitzeko beharrezkoak diren dokumentuak idazten dituzten langileak, bai eta kontratua prestatzen eta esleitzen edozein eratara parte hartzen duten adituak eta batzordeko kideak ere, jarduketa

horietan lagundu eta aholkatzen duten entitate pribatuetako pertsona fisiko guztiak barne.

- (ii) Aurreko apartatuan adierazitako pertsonen Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) beteko dute, hala ezartzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 61.3 artikuluan (Finantza Erregelamendua) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan.
- (iii) Prozeduraren batean interes-gatazkak eragiteko arriskua dakarren kausaren batean dauden agintariek eta langileek ez dutela esku hartuko dena delako prozedura horretan. Nor edo nork uste badu balitekeela interes-gatazkarik egotea, hierarkian gorago dagoenari jakinaraziko dio, idatziz; zerbitzu juridikoek txostena egingo dute, eta hartu beharreko erabakia hartuko da.
- (iv) Interes-gatazka antzeman ondoren, berehala hartuko dira neurri egokiak, dagokion kasuari aplikatu beharreko lege- eta erregelamendu-arauen arabera.

5. Dokumentazioaren zaintza

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132 artikuluan ezarritako betebeharrari jarraikiz, erregistro bat mantendu beharko da, eta finantzaketari buruzko egiaztagiria, datu estatistikoak eta gainerako agiriak gordeko dituzte bertan, bai eta formatu elektronikoko erregistroak eta dokumentuak ere, saldoa –edo, ordainketa horren ezean, eragiketa– ordaindu eta bost urteko epean. Aldi hori hiru urtekoa izango da finantzaketa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada. Betebehar hori, hala badagokio, enkargu hau egikaritzearen esparruan parte hartzen duten kontratista eta azpikontratistei ere eskatu ahalko zaie.

Auditoriei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei edo Iruzuraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erreklamazioen izapidetzeari buruzko erregistroak eta dokumentuak, bestalde, auditoria, errekurtsu, auzi, erreklamazio-izapidetze edo ikerketa horiek amaitu arte gordeko dira. Iruzuraren aurkako Borrokarako Bulegoak egindako ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra ikerketa horiek hartzaileri jakinarazi ondoren aplikatuko da.

Erregistroak eta dokumentuak gordetzeko hiru aukera daude: jatorrizkoak; jatorrizkoen kopia konpultsatuak; edo orokorrean onartutako datu-euskarriak, hala nola jatorrizko

dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan soilik existitzen diren dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean, ez dira beharrezkoak izango originalak, baldin eta dokumentu horiek legezko baldintza aplikagarriak betetzen badituzte, auditoria-ondorioetarako jatorrizkoen baliokide eta fidagarritzat jo ahal izateko.

6. Publizitatea eta zabalkundea.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ezarritako betebeharra betez, enkargu hau Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatzearekin zerikusia duten komunikazio-jarduketa guztietan, modu nabarmen eta ikusgarrian erakutsi beharko da Europar Batasunaren enblema; halaber, jasotako finantzaketaren adierazpena ere erantsi beharko dute honako erreferentzia honekin: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana — Europar Batasunak finantzatua — NextGenerationEU».

Europar Batasunaren enblema desberdina izango da eta bereizita utzi beharko da, eta ezingo da aldatu, bestelako ikus-marka, marka edo testuak gehituz.

Gauzatutako jardueri buruzko informazio- eta komunikazio-neurri horiek informazio-karteletan, plaketan, argitalpen inprimatuetan eta elektronikoetan, ikus-entzunezko materialean, webguneetan, prentsako iragarki eta txertaketetan, ziurtagirietan eta abarretan sartuko dira. Informazio-kartel eta plaka guztiak edonork ondo ikusteko moduko leku batean jarri beharko dira.

7. Datuen babesa.

Kontratistak honako hauetan ezarritako eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzen du: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta Datuak Babesteko Lege Organikoa garatzeko erregelamendua onesteko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua. Erreferentziako proiektua amaitu ondoren ere, betebeharrak indarrean jarraituko du.

8. Helburuak

Eusko Jaurlaritzako xxxxxxxx Saileko xxxxxxxx Zuzendaritzak, honako funtzio hauek ditu, besteak beste:

9. Irismena

Kontratua honako lan hau egiteko izango da:

- xxxxxxxx prestatzea.
- XXXXXXXX

10. Epea eta aurrekontua.

Lana egiteko epea: xxxx, kontratazioa formalizatzen denetik aurrera.

Lana egiteko aurrekontuak, dokumentazio-, garraio-, mantenu- eta bestelako kostuak barne hartuta, xxxxxxxxxxxx eurotik beherakoa izan behar du, BEZaren % 21 kontuan hartu gabe.

Xxxxxxxxxxxxxxxxxx(e)n, 20xxeko XXXXXren XX(e)(a)n

xxxxxxxxxxxxxxxx

Zuzendaria xxxxxxxx

III. ERANSKINA

EBAZPENA, xxxxxxxxxxx SAILEKO ZERBITZU ZUZENDARIARENA. HONEN BIDEZ, xxxxxxxxxxx KONTRATATZEKO GASTUA BAIMENTZEN DA EUROPAR BATASUNAK NEXT GENERATION EU-REN BIDEZ FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUAN.

Aztertu dira, batetik, xxxxxx Zuzendaritzak igorritako dokumentazioa, xxxxxxxx kontratatzekeo beharra justifikatzen duena Europar Batasunak Next Generation EU-ren bidez finantzatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, eta, bestetik, lan horietarako xxxxxxxxxxxxxxxx enpresaren aurrekontua, xxxxxxxx eurokoa (BEZik gabe).

OINARRIAK

1. 2022 ekitaldirako aurrekontuan badago horretarako kreditua xxxxxxxxxxxxxx programan, eta espedientea Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 118 artikuluari jarraituz tramitatu da.
2. Xxxxxxxx Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen xxxxxx-ren xxx(e)ko xx/xxxx Dekretuaren x. ataleko xxx. artikuluan xedatutako funtzioak.

BETEBEHARRAK

Kontratua Suspertze eta Erresilientzia Mekanismotik datozen Europako Funtsen kontura dago finantzatuta, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko (***) Osagaien bildutako (***) Erreforma/Inbertsioan bildutako jarduketa bat du xede.

Kontratuak honako arau hauetan ezarritakoa bete behar du, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan finantzatzeari dagokionez:

- (a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.
- (b) 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez presako neurriak onesten baitira Administrazio Publikoa modernizatzekeo eta

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko.

- (c) HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.
- (d) HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana osatzen duten alderdien mugarren eta helburuen betetze-mailaren eta aurrekontuen eta kontabilitatearen segimendua egiteko.
- (e) Gobernu Kontseiluaren Akordioa, 2022ko otsailaren 8koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jardueren eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenari, kudeaketari eta jarraipenari buruzkoa (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu zen plan hori).
- (f) Gobernu Kontseiluaren Akordioa, 2022ko martxoaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana onartzen duena (Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu zen plan hori).

Kontratista funts-hartzaileak betebeharrak izango ditu:

- (a) Neurri egokiak eta estandar altuenak hartzea Europar Batasunaren finantza-interesak babesteko eta funtsen erabilera (Mekanismoak finantzatutako neurriei dagokienez) aplikatu beharreko lege-esparrura egokitzen dela zaintzeko, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak zuzentzeko neurriak prebenitu, hauteman eta hartzeari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluan ezarritako betebeharraren esparruan betiere. Kontratatik barne-kontrolerako ezarrita dituen sistemak alde batera utzi gabe, hau sinatzeaz bat atxiki egingo dio kontu hauen inguruko planari: "Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana" delakoari (Gobernu Kontseiluaren 2022ko martxoaren 29ko Akordioan onartutakoari); izan ere, bertan jasotako gomendioak berariaz bete beharko ditu.

- (b) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsei kontrola eta jarraipena egiteko ardura duten estatuko eta Europako organoek –bereziki, Europako Batzordeak, Europako Kontuen Auzitegiak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) eta Europako Fiskaltzak– proiektura bideratutako funtsen aplikazioa kontrolatzeko jarduketan mende jartzea; izan ere, gauzatutako informazioari buruzko xehetasunak eskuratu ahal izango dituzte organo horiek.
- (c) Funtsen azken hartzailea identifikatzea (kontratistak eta azpikontratistak) HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta lizitazio-prozeduretan jasoaraztea funtsen azken hartzaileek honako informazio eta dokumentazio hauek aurkeztu behar dituztela derrigorrean:
- (i) Kontratistaren eta azpikontratisten IFZa.
 - (ii) Izena edo izen soziala
 - (iii) Kontratistaren eta, hala badagokio, azpikontratisten zerga-egoitza
 - (iv) Nola kontratistaren hala azpikontratisten benetako titulartasunaren identifikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluen 6. puntuan horri ematen zaion definizioaren arabera, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezartzen denari jarraikiz betiere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluari dagokionez.
 - (v) SEEPen ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, kudeatu beharreko esparruari eragiten badiote (***. eranskina).
 - (vi) Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH printzipioa), honako honi jarraikiz: (***. eranskina).
 - (vii) Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA), honako honi jarraikiz: (***. eranskina).
 - (viii) Inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzen delako adierazpena, Europa mailako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko eta bat etorriaz Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin (***. eranskina).
 - (ix) Kontratistek egiaztatu egingo dute izena eman dutela Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta

atxikitzaileen erroldan, edo Zergen Foru Administrazioari errolda baliokidean; prozeduran parte hartu den unean benetan garatutako jarduera islatu behar da.

Administrazioaren betebeharrak hauek izango dira:

- (a) Hau ziurtatzea:
- (i) Kontratu hau egikaritzeko kontratatuko diren balizko enpresak hautatzeko prozesuan edota baldintzak betetzen direla egiaztatzen prozesuetan parte hartzen duten pertsonak adierazi egingo dute osorik eta inolako erreserbarik gabe ezagutzen eta onartzen dituztela 2022ko martxoaren 29ko Gobernu Kontseiluaren Akordio bidez onetsitako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien planaren baldintzak. Horretarako, pertsona horien artean egongo dira kontratua esleitzeko eskumena duen organoaren arduraduna, kontratua esleitzeko beharrezkoak diren dokumentuak idazten dituzten langileak, bai eta kontratua prestatzen eta esleitzen edozein eratarik parte hartzen duten adituak eta batzordeko kideak ere, jarduketan horietan lagundu eta aholkatzen duten entitate pribatuetako pertsona fisiko guztiak barne.
 - (ii) Aurreko apartatuan bildutakoa bete behar duten pertsonak Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) ere beteko dutela, hala egin behar dela ezartzen baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduko 61.3 artikuluan (Finantza Erregelamendua) eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23. artikuluan. Adierazpen horren erredua dokumentu honen (***) eranskinean dago.
 - (iii) Prozeduraren batean interes-gatazkek eragiteko arriskua dakarren kausaren batean dauden agintariak eta langileak ez dutela esku hartuko dena delako prozedura horretan. Nor edo nork uste badu balitekeela interes-gatazkarik egotea, hierarkian gorago dagoenari jakinaraziko dio, idatziz; zerbitzu juridikoek txostena egingo dute, eta hartu beharreko erabakia hartuko da.
 - (iv) Interes-gatazka antzeman ondoren, berehala hartuko dira neurri egokiak, dagokion kasuari aplikatu beharreko lege- eta erregelamenduen arabera.

Dokumentazioaren zaintza:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 132 artikuluan ezarritako betebeharrari jarraikiz, erregistro bat mantendu beharko da, eta finantzaketari buruzko egiaztagiriak, datu estatistikoak eta gainerako agiriak gordeko dituzte bertan, bai eta formatu elektronikoko erregistroak eta dokumentuak ere, saldoa –edo, ordainketa horren ezean, eragiketa– ordaindu eta bost urteko epean. Aldi hori hiru urtekoa izango da finantzaketa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada. Betebehar hori, hala badagokio, enkargu hau egikaritzearen esparruan parte hartzen duten kontratista eta azpikontratistei ere eskatu ahalko zaie.

Auditoriei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei edo Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoaren ikerketei buruzko erreklamazioen izapidetzeari buruzko erregistroak eta dokumentuak, bestalde, auditoria, errekurtsu, auzi, erreklamazio-izapidetze edo ikerketa horiek amaitu arte gordeko dira. Iruzurraren aurkako Borrokarako Bulegoak egindako ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra ikerketa horiek hartzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da.

Erregistroak eta dokumentuak gordetzeko hiru aukera daude: jatorrizkoak; jatorrizkoen kopia konpultsatuak; edo orokorrean onartutako datu-euskarriak, hala nola jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan soilik existitzen diren dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean, ez dira beharrezkoak izango originalak, baldin eta dokumentu horiek legezko baldintza aplikagarriak betetzen badituzte, auditoria-ondorioetarako jatorrizkoen baliokide eta fidagarritzat jo ahal izateko.

Publizitatea eta zabalkundea.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ezarritako betebeharra betez, enkargu hau Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan gauzatzearekin zerikusia duten komunikazio-jarduketa guztietan, modu nabarmen eta ikusgarrian erakutsi beharko da Europar Batasunaren enblema; halaber, jasotako finantzaketaren adierazpena ere erantsi beharko dute honako erreferentzia honekin: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana — Europar Batasunak finantzatua — NextGenerationEU».

Europar Batasunaren enblema desberdina izango da eta bereizita utzi beharko da, eta ezingo da aldatu, bestelako ikus-marka, marka edo testuak gehituz.

Gauzatutako jardueri buruzko informazio- eta komunikazio-neurri horiek informazio-karteletan, plaketan, argitalpen inprimatuetan eta elektronikoetan, ikus-entzunezko materialean, webguneetan, prentsako iragarki eta txertaketetan, ziurtagirietan eta abarretan sartuko dira. Informazio-kartel eta plaka guztiak edonork ondo ikusteko moduko leku batean jarri beharko dira.

Datuen babesa.

Kontratatistak honako hauetan ezarritako eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzen du: 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta Datuak Babesteko Lege Organikoa garatzeko erregelamendua onesteko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua. Erreferentziako proiektua amaitu ondoren ere, betebeharrak horrek indarrean jarraituko du.

EBAZTEN DUT:

Baimentzea xxxxxx euroko gastua (BEZa barne), xxxxxx enpresa kontratatzeke erreferentziako zerbitzuak aurrekontu-aplikazioaren kargura egiteko.

Zentro kudeatzailea	Aurrekontu-posizioa	2022

Enpresa kontratatistari jakinaraztea kontratu honen ondoriozko betebeharrak. Enpresak Zuzendaritza honi idatziz adierazi beharko dio ados dagoela betebeharrak horiekin eta ebazpen honen eranskinak igorri beharko dizkio, behar bezala beteta eta sinatuta.

Vitoria-Gasteiz, xxxx (e) ko martxoaren xxxxx (a)

Sin.: xxxxxx

ZERBITZU-ZUZENDARIA

IV. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

_____ jauna/andreak, adinez nagusiak (NAN zenbakia: _____),
(bere izenean/_____ pertsona fisiko/juridikoaren izenean, zeina _____ IFZ
zenbakiarekin identifikatuta baitago), _____ helbide soziala
duenak, (kontratista/azpikontratista) gisa diharduenak, eta Osagaien zehaztutako
helburuak lortzeko (lizitazio-prozedura) lizitazio-prozeduraren esparruan parte hartzen
duenak, honako hau

ADIERAZTEN DU

1. ATALA: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren –SEEParen– zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoaren adierazpena

Lehenengoa. Ordezkatzen duen erakundeak arau juridiko, etiko eta moralak betetzearekin loturiko estandar zorrotzenen aldeko konpromisoa hartzen du, horri jarraikiz, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko eta antzemateko beharrezko neurriak hartzen ditu eta, hala badagokio, atzemandako ez-betetzeak dagozkien agintariei jakinarazten dizkie.

Bigarrena. SEEParen edukia kontuan hartuta, ordezkatzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko («DNSH», ingelesezko «*do no significant harm*» siglengatik) plan horren esparruan gauzatutako jarduketak gauzatzean.

Hirugarrena. Ordezkatzen duen erakundeak ez du finantzaketa bikoitzik, eta, hala badagokio, ez du Estatuko laguntzen araubidearekiko bateraezintasunerako arriskua existitzen delako ziurtasunik.

2. ATALA: Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH printzipioa)

Lehenengoa. Kontratututako enpresak baldintza hauek betetzen ditu:

1. Bertan gauzatzen diren jarduerak ez diete kalte nabarmenik eragiten beheko ingurumen-helburuei, ingurumenaren aldetik iraunkorrak diren jarduera ekonomikoen sailkapen-sistema bat (edo «*taxonomia*») ezarriz inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua araberako:

- a. Klima-aldaketa arintzea.
 - b. Klima-aldaketara egokitzea.
 - c. Baliabide hidrikoak eta itsas baliabideak jasangarritasunez erabiltzea eta babestea.
 - d. Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.
 - e. Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.
 - f. Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea.
2. Jarduerak, hala badagokio, Osagaia neurtzeko eta azpineurria egiteko ezarritako ezaugarrietara eta baldintzetara egokitzen dira, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean islatzen dira.
 3. Proiektuan gauzatzen diren jarduerak aplikatzekoa den indarreko ingurumen-araudia beteko dute.
 4. Gauzatzen diren jarduerak ez daude baztertuta Planaren bitartez finantzatzeko aukeratik, honako printzipio hau aplikatzeari buruzko gida teknikoaren arabera: «Kalte nabarmenik ez eragitea», Suspertze- eta Erresilientzia-Mekanismoari buruzko Erregelamenduari (2021/C58/01), Espainiako suspertze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren Proposamenari eta dagokion eranskinari jarraikiz.
 5. Gauzatzen diren jarduerak ez dute zuzeneko ondoriorik eragiten ingurumenean, ez eta lehen mailako zeharkako ondoriorik ere beren bizi-ziklo osoan; halakotzat jotzen dira jarduera amaitu ondoren gauzatu daitezkeenak.

Bigarrena. Badaki eta onartzen du adierazpen honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dituela.

3. ATALA: Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA)

Lehenengoa. Ezagutzen ditu honako hauek:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua («interes-gatazka») ezartzen du «interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidesun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».

2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikuluan («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distortsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta tratua berdina dela bermatzeko.
3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla «administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean», zehazki, egoera hauetako batean:
 - a. Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
 - b. Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.
 - c. Aurreko atalean aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.
 - d. Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartua izatea.
 - e. Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izatea.

Bigarrena. Ez dago EBren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat sailkatzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez dago, ezta ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta lizitazio-prozeduran eragina izateko arriskua dakarten abstenitzeko arrazoietako ezeinen mende.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen du kontratazio-organoari jakinarazteko, luzamendurik gabe, egoera hori sortu duen edo sor lezakeen edozein interes-gatazka edo abstenitzeko arrazoi.

Laugarrena. Konfidentziasunez tratatuko ditu prozedura horien esparruan garatzen diren gaiak eta dokumentazioa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 133. artikuluan ezarritako betebeharren esparruan.

Bosgarrena. Badaki Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio administratiboei eta judizialei aurre egin beharko diela.

4. ATALA: Datuak lagatzeko eta tratatzeko adierazpena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko jarduketak gauatzeari dagokionez

Lehenengoa. Ezagutzen du aplikatu beharreko araudia, bereziki Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluko hurrengo atalak, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena:

1. 2. apartatuko d) letra: «Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan inbertsio-proiektuak eta erreformak egitera bideratutako neurriei dagozkien funtsen erabilera kontrolatu eta auditoretza egiteko, bilaketak egitea ahalbidetzen duen euskarri elektronikoko batean eta datu-base bakarrean biltzea datu kategorია harmonizatu hauek:
 - a. Funtsen azken hartzailearen izena;
 - b. Kontratataren eta azpikontratataren izena, funtsen azken hartzailea botere esleitzaileraren denean, kontratazio publikoaren arloko Batasuneko edo nazioko zuzenbidearen arabera;
 - c. Funtsen hartzailearen edo kontratataren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotza-datak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren (26) 3. artikuluko 6. puntuan zehaztutakoaren arabera;
 - d. suspertze- eta erresilientzia-planaren esparruan erreformak eta inbertsio-proiektuak gauatzeko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoa zehaztuta eta nola Mekanismoaren esparruan hala Batasuneko beste funts batzuen esparruan ordaindutako funtsen zenbatekoa ere adierazita».
2. 3. apartatua: «Artikulu honetako 2. apartatuko d) letran aipatutako datu pertsonalak estatu kideek eta Batzordeak bakarrik tratatuko dituzte, 15. artikuluko 2. apartatuan eta 23. artikuluko 1. apartatuan aipatutako akordioak aplikatzearekin zerikusia duten funtsen erabilerarekin lotutako kontrol-prozeduren eta aurrekontu-kudeaketaren onarpenari buruzko auditoriaren ondorioetarako eta iraupenerako. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, EBFTren 319. artikuluari jarraikiz, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan aipatutako finantza-informazioaren eta kontu-emate bateratuaren esparruan, eta, zehazki, kudeaketaren eta errendimenduaren urteko txostenean berezita».

Bigarrena. Azaldutako esparru juridikoari jarraikiz, datuak lagatzeko eta tratatzen uzteko prest dela adierazten du, aipatutako artikuluetan berariaz zehaztutako helburuetarako.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA)